# CARITASEN KANPAINA

## «ALKARREGAZ. CAMINO DE ESPERANZA »

2025EKO EKAINAREN 22A

# CAMPAÑA DE CÁRITAS

## «ALKARREGAZ. CAMINO DE ESPERANZA »

22 DE JUNIO DE 2025

**KRISTOREN GORPUTZ ETA ODOL TXIT SANTUA (C)**

**SANTÍSIMO CUERPO Y SANGRE DE CRISTO (C)**

## Liturgia lagungarriak

### Atarikoak:

- Luzera eta hizkuntzari dagokienez, ezinbestekoa da liturgia lagungarri honeek alkarte bakotxaren inguruabarretara egokitzea.
- Maitasunaren eguna da eta lehen Eguen Santuz ospatzen zan Senide Maitasunaren egunaren sena bere egiten dau.
- Egokia litzateke Caritaseko boluntarioek gaurko ospakizunetan era aktiboan esku-hartzea.

## Subsidios litúrgicos

### Notas previas:

- Recordemos la necesidad de que estos subsidios se adapten en su extensión y lenguaje a las circunstancias de cada comunidad.
- Este es el Día de Caridad que recoge también el sentido del Día del Amor Fraterno que antes se celebraba el Jueves Santo.
- Estaría bien que el voluntariado de Cáritas participara activamente en las celebraciones de hoy.

### HASIERAKO OHARRA

Anai-arrebok: Eukaristia ospatuko dogu domekero lez. Gaur, batzar honen oina-rrian sakonago hausnartuko dogu, izan be, bere burua azkeneraino emon eban Kristoren maitasunaren jaia ospatzeko batu gara. Jauna bera agertuko jaku bere Gorputz eta Odolean. Eukaristia bakotxean, bere heriotza gogoratzen dogu eta Jaunaren sentimentu eta jarrerak eguneratzen doguz.

Caritas hurreratu jaku gaur, Maitasunaren Egun honetan. Adore emotea, sentiberatasuna biztea, kristau alkarte osoari Jesusen Barri Onaren lekukotasuna emotea eta bere eginkizuna agertzea da Caritasen kanpainen helburua. Boluntarioen jarduna, boluntario-ekintza, borondatezko jarduera, itxaropenean bide egitea dala transmititu gura da egun honetan. Boluntarioak, alkartean konpromisoa hartzen daben eta bat eginda jarduten daben pertsonak dira. Ezinbestekoa da boluntarioen konpromisoa agertzea, bere garrantzia nabarmentzea eta lan hori eskertzea. Frantzisko aita santu zanagaz batera, hauxe dinogu Eukaristia honetan:

### MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: Como cada domingo, celebramos la eucaristía, pero hoy nos detenemos un poco más a pensar en lo fundamental de nuestra reunión, porque celebramos la fiesta del amor de Cristo, entregado hasta el fin. El mismo Señor se nos hará presente en su Cuerpo y en su Sangre. En cada Eucaristía, anunciamos su muerte y actualizamos los mismos sentimientos y actitudes del Señor.

Cáritas se acerca hoy a nosotros en este Día de Caridad. Las campañas de Cáritas buscan animar, sensibilizar y dar testimonio de la Buena Noticia de Jesús a toda la comunidad cristiana, así como mostrar la labor que realiza. La Idea central de este día es que el voluntariado, la acción voluntaria es camino de esperanza. Personas voluntarias que se comprometen y actúan juntas, en comunidad. Es necesario visibilizar el compromiso de las personas voluntarias, ponerlo en valor y agradecer. Con el papa Francisco decimos en esta eucaristía:

# CARITASEN KANPAINA

«Boluntario-lana, itxaropenaren iragarpen eta zeinu da (...) Eskerrik asko zuen denpora eta gaitasunak eskaintzeagaitik! Eskerrik asko besteak gertutasunez eta samurtasunez zaintzeagaitik eta eurengan itxaropena bizteagaitik!».

Abestuz ekingo deutsagu ospakizunari.

## AGURRA

Jauna, zerutik jatsi dan ogi bizia, zuekin.

## DAMU OTOITZA

Domekako eukaristia, Kristogaz bat egitearen esperientzia da. Honen maitasunak, gainera, sinisten dogunon bihotza ikutzen dau, lagun hurkoaganako maitasuna biztuz gugan. Prestatu gaitezan topaketa horretarako.

- Gosetiak asetzeko ogiak ugaldu zenduzana: Erruki, Jauna.
- Aberats izanda, gu aberasteko behartsu egin zinana: Kristo, erruki.
- Zeure biziaz gu elikatzeko ogi bihurtu zinana: Erruki, Jauna.

## OHARRA LEHENENGO IRAKURGAIARI (HAS 14, 18-20)

Melkisedek eta Abraham gizon bikain eta esanguratsuek topo egin eta alkar onartzen dabe. Ez dago lehiarik, eskaintza eta bedeinkapena baino. Ogi eta ardaoak sakrifizio baketsua ospatzeko balio dabe. Eukaristiaren aurrerapena da.

## OHARRA BIGARREN IRAKURGAIARI (1 KOR 11, 23-26)

Bigarren irakurgaiak eukaristia-tradizinorik zaharrena jasoten dau. Jesusek bizia emotera daroan maitasunaren zeinu bihurtu ebazan ogia eta ardaoa. Komulgatzen dogun bakotxean, maitasun horrez bete behar dogu.

# CAMPAÑA DE CÁRITAS

«El voluntariado es profecía y signo de esperanza (...) ¡Gracias por ofrecer vuestro tiempo y vuestras capacidades! ¡Gracias por la cercanía y la ternura con la que cuidáis de los demás, despertando en ellos la esperanza».

Nos unimos en el canto e iniciamos la celebración.

## SALUDO

El Señor, pan vivo que ha bajado del cielo, esté con vosotros.

## ACTO PENITENCIAL

La eucaristía dominical es la experiencia de un encuentro personal con Cristo, cuyo amor toca el corazón de quienes creemos, suscitando en nosotros el amor por el prójimo. Preparémonos para este encuentro.

- Tú que multiplicaste los panes para saciar a los hambrientos: Señor, ten piedad.
- Tú, que, siendo rico, te hiciste pobre para enriquecernos: Cristo, ten piedad.
- Tú que te hiciste pan para alimentarnos con tu propia vida: Señor, ten piedad.

## MONICIÓN A LA PRIMERA LECTURA (GN 14, 18-20)

Melquisedec y Abrahán dos figuras extraordinarias y significativas, se encuentran, se acogen mutuamente. No hay rivalidad, sino ofrenda y bendición. El pan y el vino sirven para celebrar un sacrificio pacífico. Es anticipo de la Eucaristía.

## MONICIÓN A LA SEGUNDA LECTURA (1 COR 11, 23-26)

La segunda lectura recoge la más antigua tradición eucarística. Jesús hizo del pan y del vino un signo de un amor que lleva a dar la vida. Cada vez que comulgamos debemos llenarnos de ese amor.

# CARITASEN KANPAINA

## OHARRA EBANJELIOARI -ALELUIAREN AURRETIK- (LK 9,11B-17)

Ogien ugalketa be eukaristia-zeinua da. Kristok ogia zatitzen eta ugaltzen dauane-an, bere gorputzean pentsatzen dihardu. Munduko gosetien aldeko maitasunezko konpromisoa be bada. Benetan behartsuenen lekua hartuko bagendu, gose guzti-ak, ogi zein duintasunarenak, ase egingo litzatekez.

## JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Egin deiogun otoitz Jaungoiko guztiz errukitsuari, beti entzuten gaituala jakinda.

- Bizitzea egokitu jakun sasoi honetan, desbardintasunen gorakada nabarmena da. Eleizearen eta eleiztarron alde; banatzea, besteez arduratzea, errukitsu izatea... ezinbestekoak dirala sentitu daigun. Eskatu deiogun Jaunari.

- Frantzisko aita santu zanaren hitzetan, bazterkinen kultura bizi dogu. Caritasen alde; boluntario asko izan daian eta honeek euren lan apal eta xumeagaz, begiratzeaz eta isiltzeaz ezin garala konformatu ikusten lagundu deiguela. Eskatu deiogun Jaunari.

- Mundu kaotiko eta apurtu honetan, edozein arrazoirengaitik sufritzen dagozanen alde, argiari sartzen izten deutsen arrakalak zabaltzen ari dirala eta alkartuz eta alkartearen sarmurtasun eta indarraz urteera eraikitzen gabilzala ikusi daien. Eskatu deiogun Jaunari.

- Hasierako kristauen bereizgarria ez zan euren ahala, bizimodu miresgarria eta, danen ustez, sinestezina izate baino. Eukaristia ospatzeko batu garanon alde, sinisgarri izan gaitezan, gure mezua eta gure ekintzak buztartuz eta gure itxaropenaren barri emonez gozotasun eta errespetuz. Eskatu deiogun Jaunari.

Entzun, Aita, gure otoitza; Jesukristo betiko biziaren ogiaren gose izan gaitezala beti. Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

# CAMPAÑA DE CÁRITAS

## MONICIÓN AL EVANGELIO -ANTES DEL ALELUYA- (LC 9,11B-17)

La multiplicación de los panes es también un signo eucarístico. Cuando Cristo parte y multiplica el pan, está pensando en su propio cuerpo. Es también un compromiso de caridad con los hambrientos del mundo. Si realmente nos pusiéramos en el lugar de los más pobres, todas las hambres podrían ser saciadas, las de pan y las de dignidad.

## ORACIÓN UNIVERSAL

Oremos a Dios, rico en misericordia, en la plena confianza de que siempre nos escucha.

- Vivimos en una época marcada por el aumento de las desigualdades. Por la Iglesia y quienes la formamos, para que sintamos la urgencia de compartir, de preocuparnos unos por otros, de animar la tarea caritativa. Roguemos al Señor.

- Estamos, en palabras del Papa Francisco, en una cultura del Descarte. Por Cáritas, para que en ella sean muchas las personas voluntarias, que, con su tarea humilde y sencilla, nos ayuden a ver que no podemos conformarnos con mirar y callar. Roguemos al Señor.

- En medio de este mundo caótico y roto, por quienes sufren por cualquier causa, para que vean que se abren esas grietas que permiten que entre la luz y que ya estamos construyendo la salida con el encuentro, el poder de la ternura y la fuerza de la acción colectiva. Roguemos al Señor.

- Los primeros cristianos no se distinguían por su poder, sino por dar muestras de un modo de vida admirable y, a juicio de todos, increíble. Por quienes nos reunimos a celebrar la eucaristía, para que nuestra credibilidad nazca de la coherencia entre nuestro mensaje y nuestro modo de vivir, dando razón de nuestra esperanza con dulzura y respeto. Roguemos al Señor.

Escucha, Padre, nuestra oración, y haz que tengamos siempre hambre de Jesucristo, pan de vida eterna. Él, que vive y reina por los siglos de los siglos.

# CARITASEN KANPAINA

# CAMPAÑA DE CÁRITAS

## OHARRA CARITASEN ALDE DIRUA BATU AURRETIK

Kanpaina honetan, gizarteko txirotuenen eta baztertuenen ondoan egin gura daben alkarteen konpromisoa agertu gura dogu. Euren denpora, jakitea, ilusinoa, itxaropena eskaintzen daben, alkartea lekurik ezkutuenetan eta gogorrenetan, hau da, askotan ikusi be egin gura ez doguzan lekuetan, agertzera emoten daben pertsonen parte hartzean gauzatzen dan konpromisoa. Eleiza konprometitu eta zerbitzariaz emoten daben lekukotasuna eskertu gura dogu.

Gaur batu daiten dirua eleizbarrutiko Caritasentzat izango da. Eskerrik asko eskuzabaltasunez jokatzeagatik.

## JAUNARTZEKO ISILTASUNEAN

**Misino lotsatia**

Zeri buruzkoa zan amets ha?
Ez dut gogoan. Mundu honen aldeko
misino lotsatia sentituz esnatu nintzan.
Beharbada, horixe da gure gaurko bizitza:
ziurtasun gitxi, galdera asko,
segurtasunik eza,
behin-behinekotasuna guztian…
Gure bizitza aldakorra
eta altxorra buztinezko ontzietan.
Bialdu egiten gaituzu,
edo hobeto esanda: ekarri egiten gaituzu.
Deia nire erantzunaren aurretik doa.
Behar dogunaz hornitzen gaituzu:
indarrez betetako maitasun-pitina,
dana aldatzen dauan errukia,
egunero aukera barria.
Hemen zeozetarako nagoala ikusarazoten deustazu.
Bortxatu barik, norabidea emoten deutsazu nire bizitzari:
mundu honen aldeko misino lotsatia.

Alberto Nuñez

## MONICIÓN A LA COLECTA EN FAVOR DE CÁRITAS

En esta campaña queremos hacer visible el compromiso de nuestras comunidades por estar con las realidades más empobrecidas y excluidas de la sociedad. Compromiso que se concreta en la participación de personas que ofrecen su tiempo, su saber, su ilusión, esperanza, que hacen presente a la comunidad en los lugares más recónditos y duros. Los lugares que en ocasiones no queremos ver. Agradecer su testimonio de una Iglesia comprometida y servidora.

La colecta que ahora realizamos será destinada a Cáritas diocesana. Gracias por vuestra generosidad.

## EN EL SILENCIO DE LA COMUNIÓN

**Una tímida misión**

¿De qué iba aquel sueño?
No me acuerdo. Me desperté sintiendo
una tímida misión a este mundo.
Eso es quizá nuestra vida presente:
pocas certezas, tanto interrogante,
falta de seguridad,
precariedad en todo…
La existencia cambiante que llevamos
con el tesoro en vasijas de barro.
Tú nos envías. Mejor dicho: Tú nos traes.
La llamada precede a mi respuesta.
Tú nos equipas con lo necesario:
pizca de amor cargada de energía,
misericordia que lo cambia todo,
cada día una nueva oportunidad.
Me haces saber que estoy aquí para algo.
Sin forzarlo, das un rumbo a mi vida:
una tímida misión a este mundo.

Alberto Nuñez